Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Jose Urreta Izuzkitza

Ormaiztegi, Gipuzkoa (1925)



Aurkibidea

Biografia



Zegamako mikelete etxean jaio zen 1925ean. Urte eta erdirekin eraman zuten gurasoek Ormaiztegira eta Telleriaren etxean jarri ziren bizitzen. Aita Idiazabalgoa eta ama Ormaiztegikoa zituen. Bost urterekin hasi eta hamaikara bitarte, Ormaiztegiko nazionaletara joan zen eskolara. Hamaika urte zituela ezagutu zuen Gerra Zibila. 14 urtera arte ogi-banatzaileari laguntzen aritu zen Ormaiztegin. 14 urterekin Irizar lantegian hasi zen lanean, ondoren Azurmendirenean ferrak egiten," Ceramicas Celaicoa" lantegian 23 urtez, eta "Garaje Moderno" mekanika-lantegian aritu izan zen lanean.

Zintak

ORM-003

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Data**: 2009-12-01
- **Iraupena**: 61 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Eider

ORM-006

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Data**: 2012-10-26
- **Iraupena**: 50 min
- **Euskarria**: Bideo digitala

ORM-007

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Data**: 2012-10-26
- **Iraupena**: 35 min
- **Euskarria**: Bideo digitala

Pasarteak

1. Gerran aita ihesi eta Jose okindegian lanean

- **Erref**: ORM-003/005
- **Iraupena**: 0:02:26. **Hasi**: 00:07:01. **Bukatu**: 00:09:27

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:
11 urte zituela, gerra hasi zen. Jose Ormaiztegin gelditu zen amarekin, eta aitak Bilbora egin zuen ihes. Han harrapatu egin zuten eta Larrinagako kartzelan sartu zuten; gerora, etxera bidali zuten. Gerra bukatutakoan, lanik gabe gelditu zen aita eta lan solteak egiten aritu zen orduan. Gerra hasi zenean, tropak basatien moduan sartu ziren etxera; apaiza haiekin zegoenez, ez zuten hil aitona. Gerra garaian, okindegian lan egiten zuen Josek eta amak beldurra pasatzen zuen zer gertatuko zitzaion ez zekiela.

2. Gerran Ormaiztegiko zubia bota zutenekoa

- **Erref**: ORM-003/006
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:09:27. **Bukatu**: 00:10:57

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:
Gerra garaian, bonbak egon ziren, baina herria ez zuten suntsitu, zubia bakarrik bota zuten. Zubia erori zenean, uraren depositua puskatu zuen. Jende asko ibili zen lanean zubia berriro altxatzeko.

3. Kuartela bainuetxean egon zenekoa

- **Erref**: ORM-003/008
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:11:01. **Bukatu**: 00:13:06

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak
- Aisia » Oporrak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:
Zubia bota zuten garaian, kuartela zegoen bainuetxean. Bainuetxe hartara jende asko etortzen zen; besteak beste, Madrilgo alkatea. Bainuetxean hotela ere bazegoen. Lehen taberna ugari zeuden herrian, kanpotar asko etortzen baitzen, bereziki udan.

4. Bainuetxearen gainbehera

- **Erref**: ORM-003/010
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 00:14:18. **Bukatu**: 00:15:32

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Lanbideak » Polizia

Laburpena:
Bainuetxera jende aberatsa etortzen zen. Gerra bukatu aurretik, bainuetxean kuartela jarri zuten eta gerora guardia zibilak ere hor egon ziren. Bainuetxea itxi egin zen azkenean. Langile asko bizi zen bainuetxetik.

5. Gerra ostean amak ogia etxean egiten zuen

- **Erref**: ORM-003/011
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:15:32. **Bukatu**: 00:16:56

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Gerra ostean gosea pasa zuten. Errazionamendua zegoen orduan eta ogi beltza jasotzen zuten. Hala ere, amak etxean nola edo hala lortzen zuen ogi goxoa prestatzea. Ormaiztegin errota non zegoen azaltzen du.

6. Gose garaian burua piztu

- **Erref**: ORM-003/012
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:16:56. **Bukatu**: 00:18:51

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Estraperloan jende asko ibiltzen zen; Altsasura joateko nola moldatzen ziren azaltzen du. Estraperloan denetik pasatzen zuten: olioa, tabakoa... Amak txerriaren urdaia urtu eta handik lortutako gantza olio gisa erabiltzen zuen. Garia entregatu egin behar izaten zen garai hartan. Arto-zopak, arrautzak, patatak, indabak... jaten zituzten orduan baserrian.

7. Okindegian zebileneko lan-baldintzak

- **Erref**: ORM-003/015
- **Iraupena**: 0:01:13. **Hasi**: 00:21:55. **Bukatu**: 00:23:08

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:
Lehen ogiak pezeta bat balio zuen. Ogi klase gutxi egoten zen. Goizetik iluntzera arte egoten zen lanean okindegian. Ez zioten jornal finkorik ematen, okina laguntzeagatik egiten baitzuen lan.

8. Okindegian ogia egiteko makineria

- **Erref**: ORM-003/016
- **Iraupena**: 0:01:46. **Hasi**: 00:23:08. **Bukatu**: 00:24:54

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:
Okindegian ogiak egiteko zer makineria zuten azaltzen du. Hasieran egurrarekin egiten zen sua, baina gerora fuelarekin.

9. Irizarren lanean hasi zenekoa

- **Erref**: ORM-003/017
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 00:24:54. **Bukatu**: 00:26:05

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Lantegiak

Laburpena:
Okindegiko lana bukatu zuenean, Irizarren hasi zen lanean. Hasieran pintxe egon zen han; gerora, garaje modernoan egin zuen lan. Irizar enpresa inportantea zen orduan.

10. Ferrak egiten lan egin zuenekoa

- **Erref**: ORM-003/018
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:26:05. **Bukatu**: 00:27:55

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Ekonomia eta industria » Lantegiak

Laburpena:
Azurmendin ferrak egiten ibili zen lanean bi hilabetean. Ferrak nola egiten zituzten azaltzen du. Kanpora ere saltzen zituzten ferrak. Beasaingo estaziora joaten ziren kamioiak kargatzera.

11. Teila-fabrikatik Irizar lantegira berriro

- **Erref**: ORM-003/019
- **Iraupena**: 0:03:46. **Hasi**: 00:27:55. **Bukatu**: 00:31:41

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lantegiak
- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:
Teila-fabrikan egin zuen lan 23 urtean. Mantentze-lanetan aritzen zen han. Fabrikan zer egiten zen aipatzen du. 52 urte zituela, fabrika itxi egin zen eta Jose kalean geratu zen. Orduan, Irizarren hasi zen lanean eta gauzak ondo atera zitzaizkion.

12. Irizarko bi pisuko autobusak

- **Erref**: ORM-003/020
- **Iraupena**: 0:00:51. **Hasi**: 00:31:41. **Bukatu**: 00:32:32

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- Ekonomia eta industria » Lantegiak

Laburpena:
Irizarren bi pisuko autobusak egiten ikusitakoa da Jose. Autobus mota hori arriskutsuagoa da.

13. Lana aldatzeko erabakia

- **Erref**: ORM-003/021
- **Iraupena**: 0:03:38. **Hasi**: 00:32:32. **Bukatu**: 00:36:10

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:
Lana aldatzeko erabakia zergatik hartu zuen azaltzen du: lan-baldintza hobeak eskaintzen zizkioten beste lantegian. Lanera bizikletaz joaten zen.

14. Somosierrara, autobusa konpontzera

- **Erref**: ORM-003/022
- **Iraupena**: 0:01:58. **Hasi**: 00:36:10. **Bukatu**: 00:38:08

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:
Irizarren konpondu behar izan zuen autobus batena kontatzen du: Somosierrara joan behar izan zuen, elurretan, eta konpontzea lortu zuen.

15. Umetako zenbait jolas

- **Erref**: ORM-003/025
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 00:39:24. **Bukatu**: 00:40:46

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Elizaren atarian aritzen ziren kanikatan jolasten. "Arre potxotxo" jolasa gogoko zuten. Untxiei igeri egiten erakusten zieten. Bizikleta bazuen.

16. Motorra erostera joan eta autoarekin itzuli

- **Erref**: ORM-003/028
- **Iraupena**: 0:04:08. **Hasi**: 00:41:30. **Bukatu**: 00:45:38

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

Laburpena:
Motorra erosteko ilusioa zuen Josek eta herriko lagun batekin joan zen Bilbora motorra erostera. Motorraren ordez, autoa erosi zuen. Gerora, autoa margotu egin zuen eta oso pozik geratu zen. Azkenean, saldu egin behar izan zuen.

17. Bigarren autoa Madrildik ekarritakoa

- **Erref**: ORM-003/029
- **Iraupena**: 0:02:03. **Hasi**: 00:45:38. **Bukatu**: 00:47:41

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

Laburpena:
Josek autoa ekarri zuenean, oso jende gutxik zeukan autoa Ormaiztegin. Bigarren autoa Madrildik ekarri zuen.

18. Eibarko partidua kosta ahala kosta ikustera

- **Erref**: ORM-003/031
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:48:20. **Bukatu**: 00:50:00

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:
Gaztetan Ormaiztegitik inguruko erromerietara joaten ziren: Hernio, Aralar, Txindoki, Aizkorri... Lagun batek motorra zeukan; eta, Eibarko partidu batera zihoazela, istripua eduki zuten Deskargan. Bergaran, farmazia batean, zauriak sendatzeko behar zutena hartu, eta partidura joan ziren azkenean.

19. San Andresetako bihurrikeriak

- **Erref**: ORM-003/032
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 00:50:00. **Bukatu**: 00:51:16

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:
Ormaiztegin, San Andresetan izaten ziren festak. Behin festetan egindakoa kontatzen du.

20. San Ferminetan trenak ia harrapatu zituenekoa

- **Erref**: ORM-003/034
- **Iraupena**: 0:03:33. **Hasi**: 00:52:30. **Bukatu**: 00:56:03

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:
San Ferminetan, txotxongiloak etortzen ziren Ormaiztegira. Orduan zozketa izaten zen, eta behin koñak botila tokatu zitzaien; hurrengo egunean, entzierrora joan ziren, eta bidean eskapada galanta egin zuten, ia trenak harrapatu baitzituen.

21. Ormaiztegiko telefono zentrala

- **Erref**: ORM-003/036
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:56:14. **Bukatu**: 00:57:22

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:
Ormaiztegiko telefono zentrala beren etxe azpian egon zen. Gerora, beste zenbait lekutara pasa zuten. Zentrala lokutorioa zen eta Kaxilda egoten zen han lanean. Argia eta ura beti izan dituzte etxean.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-11-14

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com